

OPOIPIAPARTZUPUN

Malen Sarasola

Oiartzun

Duela zenbait mende hasi zen guztia. Nire bizitza zeharo aldatu zuen egun bat izan zen. Oker ez banago, behintzat, 1700. urtean eman zitzaion hasiera istorio honi, Orbelatz herriko neguko goiz hotz batean. Oso ongi gogoratzen dut momentu hura, atzo bertan gertatu izan balitz bezala.

Egunero egiten nuen moduan, goiz jaiki nintzen orduan ere. Beharrezko gauzak hartu eta aitona-amonon baserrira joan nintzen bertako lanetan laguntzera. Izugarri nuen gustuko lan horiek egitea: behiak jetzi, abereei jaten eman, eta oro har, baserri-munduan murgilduta egotea. Baina, nik gehien maite nuena *attona* Joxek eta amona Iñaxik sutondoan kontatzen zizkidaten kondairak entzutea zen, gehien bat sorginenak. Pertsonaia mitologiko horien barrabaskeriak, irri-algarak, oihuak, festak eta dantzak nire irudimenean ikustea, entzutea eta sentitzea nuen gustuko, egiazkoak balira bezala.

Kondaira amaitu ondoren, amonak beti esaldi bera errepikatzen zidan, ordura arte zentzurik hartu

ez nion esaldi bat, honela zioen: «Segi iezaiozu zure senari, miatu Orbelatz, euskal mitologiaren herria». Esaldi horren esanahia asmatzen ibili nintzen egunak joan eta egunak etorri, ez nekien, bada, egun hartan ulertuko nuela hitz haien zentzua.

Ipuina amaitu ostean eta eguerdi aldera, amak ondoko etxeko leihotik oihu egitean, bazkaltzera joaten nintzen. Gero, korrika eta presaka etxeko mahaia jasotzen lagundu eta segituan ateratzen nintzen nire abenturen bila Orbelatz herrian zehar. Arratsalde luzeak ematen nituen hara eta hona, *zerbait* bilatzeko asmoz, ez nekien zer bilatzen ari nintzen, ordea. Egun hartan, Arditurrira joatea erabaki nuen, herriko meategira. Hara iritsi eta bizilagun asko ikusi nituen bertan, lanean, batzuk bazterrak ustiatzen, besteak metak eraikitzen... Giro kaxkarra zegoen, ordea, lanean aritzeko, ilunabarrean murgiltzen ari zen eguna eta negu gorriko tenperaturak oso nabarmenak ziren mendi-magalean. Ondorioz, handik denbora gutxira, bakarrik geratu nintzen bertan, aurrez aurre nuen hiru tontorreko mendiari so. Une hartantxe, izugarritzko ikara eta urduritasuna sorrarazi zidan Aiako Harriak izeneko mendi hark; baina aldi berean, ahots ezezagun bat entzuten nuen urruti, niri deika arituko balitz bezala, eta mendi hartara hurbiltzeko esaten zidan. Beraz, nire ausardia baieztatuz aurrera jo nuen.

Paisaia gero eta ilunagoa zen, eta zeruak euri-zaparrada botako ote zuen itxura zuenez, ilargirik ez eta izarrak ere gutxi ikusten ziren. Ibai-bazterre-

tatik joan nintzen poliki-poliki, hitz egiten zidan ahotsari jarraituz. Ibilaldia nahiko luzea egin nuen, mendi-tontorrera ailegatzeko gutxi falta bainuen. Hala eta guztiz ere, etxeakoak kezkatuko nituelakotan, itzulbidea hartzea erabaki nuen.

Banindoan mendian behera, eta bat-batean izugarrizko zaparrada hasi zuen. Oraindik bide luzea geratzen zitzaidan etxera heltzeko eta euri-jario harekin ezinezkoa zen salbu iristea, beraz, iluntasunean, ingurura begiratzen hasi nintzen, nolabaiteko aterpearen bila. Handik gutxira, leize moduko bat bistaratu nuen nigandik metro gutxitara eta sekulako ekaitza ari zuenez, bi aldiz pentsatu gabe bertara joan nintzen.

Leize isil eta iluna zen, sakonera handikoa. Begiradatxo bat eman nahi izan nion lekuari, baina beldurrak atzera bota ninduen, beraz, ezer berezirik egin gabe, bertako harkaitz baten alboan etzan eta lo hartu nuen.

«Jarrai iezaiozu bideari, sar zaitetz barrura...». Tupustean esnatu nintzen nire ametsetatik. Aiako Harrira igotzeko esan zidan ahotsa zen eta deika ari zitzaidan oraingoan ere. Aurrekoan ez bezala, birritan pentsatu behar izan nuen, iluntasunak izutu egiten ninduelako, baina zalantza askoren ondoren, ahotsari kasu egin eta kobazuloan murgiltzea erabaki nuen.

Baneramatzan zenbait minutu oinez. Nire barruko ahots hura zentzugabekeria hutsa izan zela pentsatzera ere iritsi nintzen eta azkenean buelta eman eta itzultzea pentsatu nuen. Baina, halako

batean nolabaiteko irrintziak entzun nituen argirik gabeko paisaia beltzaren sakontasunetik ateratzen. Jakin-minak bultzatuta, hara joatea ebatzi nuen.

Bide luzea izan arren, azkenean iritsi egin nintzen zalaparta horien jatorrira. Kobazuloaren barneko harri handi baten atzean ezkutatu eta bertan hainbat pertsonaia mitologiko ikusi nuen. Ezin nuen sinistu: sorgin eta piztia arraro mordo bat suaren inguruan dantzan zebilen! Sorginek gona luzea zeramaten jantzita eta berorretatik koloretako zenbait oihal zintzilik zeuzkaten. Buruan, kono formako kapela itxurako zapi zuria zeukaten, dena belar, sasi eta huntzez inguratutik. Izaki itxura hartzen zuten sorgin guztiek, haien esku eta aurpegiak geureen antzekoak baitzituzten. Aldiz, ondoran zeuzkaten piztiak, ez ziren giza itxurakoak, guztiz aurkakoak baizik: animalia-larraz eta -ilez osatutako oihalak janzten zituzten; buruan ere, iledun larru berbera eta horrexetatik bi adar luze irteten zitzaizkien, betizuen antzera. Hura ikustean, beldurra sentitu beharrean, bertara joan eta haiekin dantzan ibiltzeko gogoia piztu zitzaidan. Beraz, suaren deiarri jarraituz, bertara hurbildu nintzen pixkanaka.

Hara heldutakoan, inongo azalpenik eskatu gabe onartu ninduten beren festan. Eskutik heldu eta suaren ingurura eraman ninduten dantzatzera. Irri-algaran igaro genuen gau osoa. Denbora horrek guztiak piztia ezezagun haiek ezagutzeko aukera eman zidan, eta «intxixu» izena zutela ikasi nuen. Gau osoan zehar, intxixu eta sorginekin hitz

egiteko parada ere izan nuen, baina ez zitzaidan batere erraza egin, erabiltzen zuten hizkuntza bes-telakoa zelako, gurearen oso desberdina.

—*Kapaixopo gapaztepe! Eperporripi zaparapa apaz-kepenepeapan!* («Kaixo, gazte! Etorri zara azkene-an!») —zioen sorgin batek.

—*Apaskopo poztepen gapaitupu zupu hepemepen ipi-kupustepeapak!* («Asko pozten gaitu zu hemen ikus-teak!») —esan zuen ondoko intxixuak.

Hasieran asko kostatu zitzaidan esaten zutena ulertzea, baina gero, segituan konprenitu ahal izan nuen, eta oso hizkuntza dibertigarria iruditu zitzaidan. Hortaz gain, haiei buruz zenbait galdera egin nizkien: ea bertakoak ziren, zenbat urte zeramatza-ten han bizitzen, zer egiten zuten herrian... Izaki horiek Orbelatzekoak ziren jatorriz, beti bizi izan ziren Aiako Harriko kobazuloetan eta gauero jais-ten omen ziren herrira beren barrabaskeriak egite-ra eta, irrien artean, intxixu eta sorginen kantuak abestera.

Haiek esaten zutenaren arabera, herrian kondai-ra gisa ziren ezagunak. Behin aizkolari batek men-dian pertsonaia mitologiko horietako batzuk ikusi omen zituen eta ostean herrian ikusitakoa kontatu omen zuen. Ezinezkoa badirudi ere, bertako biz-tanleek aizkolariak esandakoa aintzat hartu eta urtez urte, belaunaldiz belaunaldi, transmititua izan zen kondaira hura ordura arte. Azken finean, piztia haiek inork gehiago ikusi ez bazituen ere, gauetan egindako barrabaskeriak agerikoak ziren, beraz, nola edo hala herritar guztiek sinesten

zuten haiengan. Baina, une hartan beste galdera garrantzitsu bat otu zitzaidan, ni han egotearen arrazoia zein ote zen galdetu nien. Hau da, nolatan utzi ninduten pertsonaia mitologikook beren kobazulora sartzen, ordura arte bizileku hori ezkutan gorde izan bazuten?

—*Supuaparepen depeiapa japasopo zepenupepen, beperapaz, guputapakopo bapat zaparapa: soporgipina!* («Suaren deia jaso zenuen, beraz, gutako bat zara: sorgina!») —esan zidan sorginetako batek.

Momentu hartan ezin nuen sinetsi, betidanik amona Iñaxik eta aitona Joxek kontatutako kon-dairak egiazkoak ziren, eta hori gutxi balitz, ni pertsonaia haietako bat nintzen: sorgina! Orduantxe ulertu nuen amonak beti errepikatzen zidan esaldi hura: «Segi iezaiozu zure senari, miatu Orbelatz, euskal mitologiaren herria». Jakina, nire senari jarraitu behar nion, nire benetako izana sorgin izatea zen, eta era berean horrek Orbelatz herria euskal mitologian oinarritzen zuen. Amonak betidanik jakin izan zuen nire etorkizuna sorgin bilakatzea izango zela. Berehala ulertu nuen, bada, zer zen urteetan zehar bilaka aritu nintzen *zerbait* hori: nire benetako izana aurkitzen aritua nintzen ohartu gabe.

Une hartatik aurrera gauero biltzen ginen Aiako Harriko kobazulo hartan, intxixu eta sorginok, akelarretan, suaren inguruan dantzan aritzeko. Ondoren, herrira jaisten ginen eta izugarritzko barrabaskeriak egiten genituen: plazako udaletxea soka batetik zintzilik igo, etxeetako zakurrak zirika-

tu, irrintzika eta jolasean aritu... Oso momentu dibertigarriak igaro nituen lagun berriekin, familia berriarekin, hain zuzen. Baina egun batean, gaue-tan herrira jaisteko irtenaldioi amaiera eman behar izan genien.

Bertako biztanleak gaue-tan herrian biltzen hasi ziren, guk sortutako hondamendi haiek gehiago gerta ez zitezen, hau da, gurekin hitz egin nahi zuten, akordio batera iristeko eta piztiok herria hankaz gora utz ez genezan. Hortaz, arazo horri aurre egiteko, egun batean herrira jaitsi ginen eta herritarrekin hizketaldi bat antolatu genuen, alde-z aurretik barkamena eskatzeko gure basakeriek eragindako hondamendiengatik. Hizketan aritu ginen bitartean, ia-ia herri osoa bildu zitzaigun gure inguruan, gehienak gu han ikusteaz harriturik zeuden eta beste batzuk beldurturik. Bertan ikusi nituen aitona-amonak ere, baserriko leihotik zelatan, neuri begira. Orduantxe haien irribarrearen berotasuna sumatu nuen gorputzean barrena, haien maitasuna, eta nik eskerrak emanez sorginen irrintzia bota nuen, herri osoan entzun ahal izan zen irrintzi ahaztezina.

Halako batean iritsi ginen akordio batera: urtean behin, otsail inguruan eta inauteriak ospatu baino astebete lehenago, Aiako Harriko kobazuloetatik irten, lastargiak hartu eta pixkanaka Orbelatz herrira jaisteko aukera izango genuen in-txixu eta sorginok. Egun hartan, gure zalapartak atera eta barrabaskeriak egin ahal izateko parada izango genuen, eta gainera, herritarrek gurekin

suaren inguruan dantzatzeko aukera ere izango zuten. Festa bukatu ostean, piztiok geure leizeetara itzuliko ginen, eta ez genituen herritarrak gehiagotan ikusiko hurrengo urtera arte.

Hala, urterik urte (eta gaur egunera arte), orduan hitzartutako akordioa bete egiten genuen. Ez ginen herrira jaisten baina, gure irri eta oihuak Orbelatzen entzuten ziren zurrumurrua zebilen beti herritarren artean, edo halaxe zioten, behintzat. Intxixu eta sorginon barre-algarak sortutako *oihartzuna* herrian murgildu zen eta horixe izan omen zen, bada, bertako biztanleek herriari izena aldatzeko arrazoia: Orbelatz izatetik Oiartzun izatera pasatu zen, hortaz.